

Orain da garaia!

ZA
BAI
TZEN

DOKUMENTAZIO
ZENTROA

TXT 20203

ERAIKI DEZAGUN LANGILERIAREN EUSKAL HERRIA!

Sarrera

Alternatibaren bidea jorratzea da aberatsenak oraindik eta gehiago aberasteko eredu politiko eta sozioekonomikoa inposatzen ari diguten testuinguru historiko honetan dugun erronka nagusia. Alternatiba dago eta ez dugu aldarrikapen hutsa izatea nahi, Herri honetan langileriaren borrokari esker nagusitzen den bidea izatea nahi dugu.

Gaur inoiz baino konbikzio eta arrazoi gehiagokin defendatzen dugu sistema honetan ez dagoela etorkizunik Euskal Herriarentzat, ezta langileontzat ere. Kontran, Euskal Herrian badago aberastasun nahikoa herritarren bizi eta lan baldintza duinak ziurtatuko dituen eredu ekonomiko eta sozial bat eraikitzeko, aberastasunaren banaketa justu batekin gure etorkizun ekonomiko eta politikoa ziurtatzeko. Badago *inteligentzia* eta masa kritikoa ere alternatiba hori definitzeko eta garatzeko. Badago egitura sozial, politiko eta ekonomiko nahikorik eredu berri baten aldeko hautua eginez alternatiba eraikitzen hasteko. Eta orain da garaia Euskal Herri berri horren eraikuntzan urrats berriak emateko.

Krisiak alternatibaren beharra nabarmendu eta indartu du. Konponbidea ez dago herritarren eta langileen kontura hazkunde garai berri bat irekitzean, krisi hau sortu duen eredu politiko eta sozioekonomikoa aldatzean baizik. Krisiaren aterabidea enpresak eta banketxeak dituzten arazoak konpontzean kokatzea gaur langileriari egiten ari zaion iruzurrik handiena da. Kapitalismoa gure behar eta interesak asetzeko sistema baliagarria dela esatea bezain okerra da.

Esperientziak esaten digu ez dela egia krisiak alternatibaren bidea berez sendotzen duenik. Krisiek gauzak aldatu behar direla erakusten dute baina horrek ez du zuzenean alternatiba indartzen. Alternatiba gure burua antolatuz eta gure borrokan sakonduz indartzen da. Helburu horiek dituen gure klase estrategia berritzea izango da kongresu honen eginkizun nagusia beraz. Eta, Euskal Herrian bizi dugun testuinguru berezi eta historikoari begiratzuz egingo dugu, okertzeko beldurrik gabe esaten dugulako aukera berriak eskaintzen dizkigun testuinguru bizi dugula.

Eredu berri bat eraikitzea bide oso baten emaitza izango da. Prozesu politiko oso baten emaitza hain zuzen ere. Eta gaur martxan da aldageta politiko eta sozialak burutzeko prozesua Euskal Herrian. Hor dago bide berri bat hartzeko eta egiteko aukera euskal langileriarentzat.

Ez gara krisiaren ondorioak eta bere atzean dauden politikak salatzeri mugatuko. Gure eskakizunak indartu eta gure aldarrikapenetan urrats berriak eman nahi ditugu. Eredu berri baten eraikuntzan aurrera urratsak eman nahi ditugu. Krisi honen jatorrian dagoen eredu politiko aldatu nahi dugu eredu sozial berri bat eraiki ahal izateko. Anbizio horrekin heltzen gara gure VIII Biltzar Nagusira.

1. KAPITALISMOAK ZUZENTZEN DU EUSKAL HERRIAREN ETA LANGILERIAREN BIZITZA.

1.1. Krisia da nagusi azken urteetan.

1.1.1. Neoliberalismoaren emaitzak.

Gaurko egoera ulertzeko kontutan hartu behar ditugu sistemak azken hiru edo lau hamarkadetan izan dituen aldaketak. Merkaturia desregulatzea eta kapitalen joan etorriak liberalizatzea akumulazio eredu transformatu dute. Azken garai luzean bere garapena ez da aberastasun produktiboan oinarritu, kapital finantzieroaren nagusitasunean eta irabazi espekulatiboetan baizik.

70 hamarkadan dago bilakaera honen jatorria. Batetik, sistemaren berezko kontraesanek lan gatazkak eta tentsio sozialak areagotu zituen. Eta bestetik, bigarren mundu gerra ondoren

→ ANALISIS:

- Mula Mula: DESBERDANTASUNA

↳ COLONIALEKIMO. → MERLATUA

→ EKONOMIA EMERGENTEK.

→ EREAN BERRIAK

- EUROPA KONJESTUKI
(ISEIEN.)

} → DIRIKEN HUMANIZAZIOA
||

SODALISAMEN MURRIZEN
FALTA

[SISTEMA EZ ORO KRISIAU]

finkatutako hazkunde ereduak bereak emanak zituela erakusten hasi zen. Produktibitatea eta rentabilitate tasa erortzen ari ziren berriro.

Nazioarteko komertzioa "kontraitzea", burtsa krisiak, Bertton Woodsek diseinatutako nazioarteko diru sistemaren kolapsoak eta lehen gaien salneurriak garestitzeak krisi ekonomiko sakona sortu zuten nazioarte mailan. Eta krisiari aurre egiteko sistema kapitalista refundatzea helburu zuen eraso orokorra (ideologikoa, politikoa eta ekonomikoa) prestatu zuten.

Refundazioak kapitalismoaren oinarrizko printzipioari erantzuten zion noski; kapitalaren interesak garatzeko baldintza hobek ezartzea rentabilitate mailak berreskuratzeko eta handitzeko. Eta kapitalak egiturazko doitzeak bilatzen zituen programa oso bat jarri zuen martxan, ondoren neoliberalismo bezala ezagutu dugun eredu finkatuz.

Programa neoliberalaren ardatz nagusiak hiru dira: Desregularizazioa, politikak ekonomian ez esku hartzea merkatuaren legea ez oztopatzen duelako. Enpresa eta zerbitzu publikoen pribatizazioa inizatiba pribatuaren negozio eremua handitzeko. Eta merkatuak liberalizatzea, kapitalaren nazioarteko joan etorriek inolako mugarik ez edukitzea bere balioa handitzeko bideak aurkitzeko orduan.

Politika ekonomiko hauek langilerian izan dituen ondorio kaltegarriak ezagunak ditugu, aberastasunaren banaketan gure parte hartzea asko gutxitzea eta eskubideen murrizketa sistematikoa ekarri duelako. Ez da lan merkatuaren prekarietara mugatu den prozesua, prekarizazio soziala zabaldu eta indartu da aberastasuna barra barra sortu arren.

Garai honen beste ezaugarria izan da finantza kapitalaren internazionalizazio handi bat eman dela, kapital produktiboari gailenduz eta sistema bera transformatuz. Espekulazioa nagusitu da, produkzioak dirua sortzen duen eredutik, diruak dirua sortzen duen eredura pasa gaituzte, eta bere gatibu egin gaituzte. Espekulazioa da ereduaren ardatza, inolako kontrolik gabeko espekulazioa. Herrien benetako garapeneri ezer ekartzen ez dion espekulazioa hain zuzen ere.

Aberastasunaren banaketa desorekatu eta bidegabea dago mugimendu espekulatuaren atzean. Neoliberalismoak diru kopuru itzelak uzten ditu korporazio transnaziional-finantzieroen eskutan, eta diru guzti horrek arazoak ditu bere balioa biderkatzeko inbertsio produktiboan.

Aberatsenek sekulako dirutza zuten eskutan baina diru horrek ez badu ezertarako balio, ez badu irabazirik ematen, bere balioa galtzen du. Espekulazioaren bidea hautatzen dute arazo hau konpontzeko. Produkzio eredu kapitalista ez da desagertzen noski, baina sistema finantziero eta sistema produktiboaren arteko oreka eta lotura apurtu egiten da, sistema finantzieroaren mesedetan. Desoreka honek krisiak sortu ditu beti.

Aberastasunaren banaketa ankerraren beste ondorioa zorpetze masiboa izan da, publikoa zein pribatua. Soldatak etengabe erasotzeak sortutako arazoa zuzentzeko bidea zorpetzea ahalbideratzea izan da. Dirua merke uztea herritarren esku guztion kontsumoaren bidez handitzeko barne eskaria eta horrela luzatzeko hazkunde garaia.

Azken garaiko hazkunde ekonomiko ikargarriaren oinarri hutsalak izan dira hauek. Guztiak eztanda egin eta hankaz gora jarri den arte. Zabor finantzieroak sistema osoa kutsatu duenean eta burbuila espekulatioak eztanda egin duenean nazioarteko sisteman kolapsoa nagusitu da eta 2007tik geroztik krisia da sistemaren bilakaera zuzentzen duena.

1.1.2. Krisi hau berria da, sistema bera dago krisian.

Akumulaziorako eredu kapitalistak krisi eta transformazio asko bizi izan ditu bere historiaren zehar. Ezin ditu krisiak ekidin eta guztiak ekarri dituzte aldaketak, printzipio berdinari jarraituz burutu dituzten aldaketak hain zuzen ere: Kapital pribatuaren irabaziaz maximizatzea plusbalia tasa handituz.

Kapitalismoan sakonduz ireki dira hazkunde ekonomiko garai berri guztiak. Sistema eraberrituz luzera krisi berri eta okerragoak ekarri dituzten eredu sozioekonomikoekin. Sistemak bere bidea egin du horrela, baina baita bere baitan biltzen dituen arazoen ere.

Kapitalismoan ez dago lana eta kapitalaren arteko kontraesana eta gatazka gainditzetik. Aurrera egin ahala areagotu egiten da gainera kapitalak bere irabazkiak berreskuratzeko eta handitzeko zapalkuntza bideak etengabe indartu behar dituelako.

Aberatsenak aberatsago egiteko eredu nagusitu da eta datuak bistakoak dira: munduko aberatsenak diren biztanleriaren %20a, munduko diru sarreraren hiru laurdenen jabe da. Kontran, txiroenak diren %20ak diru sarreraren %1,5arekin bizitzera kondenatuak daude.

Ez gara oso urrutira joan behar desoreka neurri gabekoa dela ikusteko. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan, biztanleriaren % 1,67 osatzen duen elite ekonomikoak bertako aberastasunaren %44,78a kontrolatzen du. Ondoan, herritarren %8ak 500 eurokin biziraun behar du eta %36,33ak pobrezia mugaren azpitik dago.

Enpresak bere irabazkiak lan kostuak gutxituz eta zerga gutxiago ordainduz handitzen dituztelako da hau. Eta bide horretan jarraitzeak arazoa larritu besterik ez du egiten. Hau da gertatzen ari dena azken hiru urteetan. Krisiaz baliatzen dira langileon eskubideak murrizteko baina ez da krisialdiarekin lotzen den arazoa, sistemaren joera da eta behar izana da. Gure eskubideak muga bat dira kapitalak bere irabazkiak handitzeko eta zenbat eta arazo gehiago irabazkiak mailak berreskuratzeko, orduan eta eraso handiagoa gure eskubideen kontra.

Sexu genero arazoa guztiz konponezina da emakumeen zapalkuntza derrigorrezkoa delako sistema bideragarria izateko. Emakumeoi eskubide berdintasuna benetan aitortuko balitzaiguke eta bide hori egiteko benetako neurriak hartuko balira gaurko eredu goitik behera aldatuko litzateke. Berdintasunaren arazo deitzen dioten honetan diskriminazioak ez dira konpondu, ezta gutxitu ere. Eta krisi honen baitan desberdintasunak areagotu eta handitu egin dira.

Langabeziaren eta bazterketaren datuei begiratzea besterik ez dago, baina krisi honen kostuak ez dira horretara mugatzen. Zerbitzu publikoak pribatizatzea emakumeak gaindituak omen zeuden egoeretara bueltatzea ekartzen ari da, sektore publikoak ziurtatzen ez dituen zaintza lanak emakumeen bizkar gainean geratzen ari direlako batez ere.

Sistema kapitalistak egiturazkoak zaizkion krisien gainean egin du bere bidea. Kasu honetan ere, krisirik konpondu gabe. Sistemak ez du inolako neurririk, diru eta botere gosea asegaitza delako. Beraz krisi hauek neurrik gabe garatzen ari dira ere. Krisi energetikoaz, ekologikoaz eta alimentarioaz ari gara. Ezin dira gainditu, ezta bideratu, ezta zuzentze bidean jarri ere.

Lehen gaien arazoak sistemaren transformazioa ekarri du garai ezberdinetan. Egurraren arazo bukatu eta ikatza eta burdinaren arazo pasa behar izan zenetik, gaurko petroleoaren krisira iritxi arte. Sistema finantzieroa nagusi izan arren kapitalismoa produkzioan oinarritzen da, neurrik gabe produzitzen du eta horretarako lehen gaiak eta erregaiak behar ditu. Baina hauek ez dira neurrigabekoak. Arazo hori erreal da eta erregaiak ziurtatzea eta kontrolatzea behar beharrezkoa da sistemarentzat.

Txina eta Indiaren produkzio mailak sortu omen dute krisi hau. Gezurra da, sistemak berezkoa du eta krisi honen gainean eman dituen urratsek mundu osoan eragin dute. Gaur krisi hau inoiz ez bezalako gordintasunarekin agertzen da orain eta ez du inolako konponbide onik.

Krisi ekologiko eta alimentarioa ere nabarmena da. Munduan mila milloi pertsona zeuden 2009an gosea pasatzen, eta krisiak gosetea zabaldu du noski, 100 milloi gehiago hasi zenetik. Gehiegizkoa omen da gure artean gosea arazo bat dela esatea, baina azterketan sakontzen badugu ez gaude arazo honetatik at.

Pertsona pentsionisten elikadura maila okertzen ari da, eta errealitate bat da gure artean. Euskal Herria aberatsa da nekazaritza eta arrantzari dagokionez, kontran, pertsona nagusi askok behar baino barazki eta arrain gutxiago jaten dutela diote ikerketek, bere osasunaren kaltetan. Ez da jakirik ez dagoelako, mixeriazko pentsioek eragozten dielako baizik.

Eta bukatzeko, sistemaren etorkizunerako erabakigarriak izango diren beste bi krisi edo arazo indartu dira azken urteetan. Bata hegemoniaren arazo da, bestea zilegitasunarena. Horien gainean zein erabaki nagusitzen diren erabakigarria izango da guztiontzat, baita guretzat ere.

Batetik, jokoan dago nork agintzen duen munduan. Nork zuzentzen duen eremu kapitalista osoaren bilakaera, eta horren arabera, mundu osoarena. Atzetik datorren egoera dela gogora ekarri nahi dugu. Bere momentuan genion AEB, EU eta Japonen osatzen duten hirukotearen hegemonia arriskuan jartzen zuten joerak indartzen ari zirela. Hego Ameriketara bere buruaren jabe izateko erabaki irmoa duten herrialdeek AEBren nagusitasuna zalantzan jarri dute eremu horretan. Eta BRIC deritzoten herrialdeak munduko produktore nagusiak bilakatzen ari dira, bere boterea eta eragin eremua handitzen ari delarik.

Gaur arteko hegemonia kolokan dago eta bakoitzak bere lekua eta nagusitasuna ziurtatu behar du. Nagusitasun horren atzean dago erregaiak kontrolatzea, sistemak pobrezia kondemnatu dituen herrialdeak bere horretan jarraitzea... Lehia handia da eta botere guda bat den heinean, lehenetsuzkoa da potentzia guztientzat. Norberaren boterea indartzea guztiaren gainetik dago, eta guda horretan nagusitzeko beharrezkoa den guzti guztia egin behar da.

Errealitate honek Europan eragin bereziak ditu gainera. Europak bere boterea nola mantentzen eta indartzen duen da kontua, horretarako sortu zen EBren proiektua. Baina horrekin batera, barne boterearen arazoa dago, Europan bertan nork agintzen duen eta boterea nola berrordenatzen den okoa dagoelako ere.

Orain arteko eredu hegemonikoa krisian egoteak potentzia ezberdinen arteko botere harreman berria finkatuko dela esan nahi du, eta hori prozesu oso gatazkatsua izango da norberak bere boterea beste baten kontura indartu behar duelako.

Estatuen boterea indartu behar bada Herrien kaltetan izango da. Kapitalak are eta botere gehiago izango badu langileak oraindik eta gutxiago izango dugulako. Alemaniak bere hegemonia indartuko bada beste herrialdeak bere erabakien esanetara jartzen dituelako izango da.

Honela ulertzen da krisia okertzen dituzten neurrietan tematzea, ekonomiaren eta herritarren eskubide eta interesen kontrakoak direla nabarmena denean. Gobernuak ez dira krisiaren kontra borrokatzen ari, sistema honen biziraupenaren alde baizik.

Eta azkenik, sistema beraren zilegitasuna da geroz eta modu nabarmenagoan auzitan jartzen ari dena. Logikoa da guztiz, ezberdintasunak eta injustizia sozialak nabarmen handitu direlako munduan zehar. Sekulako aberastasuna sortu da eremu jakin batean gainontzekoen kaltetan, eta gutxi batzuen mesedetan sortu da, gehiengoaren gainetik.

Progresoaren eta garapenaren izenean atzera egiten ari gara. Gure azken urteko aldarrikapenak eta borroka nagusiak adierazgarriak dira benetan: osasuna eta hezkuntza herritar guztiei ziurtatuko dien sistema bat aldarrikatzen ari gara XXI. mendean. Biak XIX. mendeko aldarrikapenak.

Geroz eta zailagoa dute herritarrek sistema honetan sinistea. Eta batez ere, geroz eta zailagoa egiten zaie guzti hau gertatzea uzten duen eta guzti hau horrela gertatzea ziurtatzen duen klase politikoan sinistea. Azken hiru urteetan hartu dituzten erabakiak hartu ahal izateko modu bakarra herritarrak eta langileak erabakietatik baztertzea da, erabaki guneak urruntzea, instituzioak sistemaren zerbitzura jartzea eta kapitalaren esanetara dagoen klase politikoa nagusi izatea leku guztietan.

Demokrazia burgesak hori horrela izateko aukerak eman ditu, baina krisi honek baita demokrazia eredu hau txikitu du. Ez dago egiten ari direna bide demokratikoetatik egiterik, beraz demokrazia bazterrean geratzen den zerbait da. Grezian erreferendum bat egitearen aukerak sortutako iskanbila politikoa da adierazgarriena.

Islandia dugu kontrako adibidea. Herritarrei galdetu zaienean, gaur nagusi diren politikak baztertzea hautatu dute eta bestelako bideak hartzeko erabakia nagusitu da. Gaur ez dira bateragarriak demokrazia, herritarrak izatea erabakien benetako jabegoa, eta sistemaren beharrak asetzea.

1.1.3. Transformazio baten erdian gaude

Ez da egia garai txar bat pasatzen ari garenik. Gezurra da hau krisi ekonomiko huts bat dela, doitze batzuekin gaudituko dela eta duela urte batzuetako egoera berreskuratuko dela. Kentzen

ari digutena ez digute itzuliko, kapitala bere bidea egin ahal izateko ari digutelako guztia kentzen. Egoera zaharrak ez dira berreskuratzen sistema kapitalistaren bilakaeran, egoera berriak sortzen dira eta langileontzat beti izan dira aurrekoak baino okerragoak.

Bizi izan ditugu krisi gehiago baina okertzeko inolako beldurrik gabe esan dezakegu hau ez dela beste krisi bat. Krisi hau berria da bere neurriagatik, baita bere dimentsioagatik ere. Kapitalismoaren baitan elkarbizitzen diren krisi eta kontraesan guztiak bere gordintasunean agertzen ari dira eta gainera momentu berdinean bat egin dute guztiak.

Krisi hau berria da, eta errealitate berri bat sortuko du munduan. Ez dakigu nolakoa izango den, baina hiru gauza oso oso argi daude. Lehenengoa, oso kaltegarria izango dela herrientzat eta langileentzat kapitalismoaren esku uzten badugu errealitate berri horren definizioa. Bigarrena, kapitalismoaren sakontzetik etorriko bada egoera berria, halaberharrez izan behar duela bortitza. Ez dago herritarren ongizatea ziurtatzerik kapitalismoak bere bidea egiten jarraitzeko hartzen ari dituen eta hartuko dituen neurrietan.

Eta hirugarrena: Kapitalismoak ez duela epe mugarik. Bere akabera ez da emango bere krisia konponezina delako, ezta bere kontraesanak neurri gabe indartzen direlako ere. Sistema hau botere harremanaren gainean eraiki dago eta harreman hori dagoen bitartean kapitalismoa egongo da.

Gure azterketa benetan da gordina. Egoera gordina delako. Testuinguru historiko bat bizitzen ari gara eta horrela ulertu behar dugu gaur aurrez aurre ditugun erronken garrantziaz jabetuko bagara. Kapitalismoa transformazio baten erdian dago, kapitalismo oraindik eta bortitzago bat ekarri duen bidea egiten. Eta langileria da bide hori baldintzatu eta norabidez aldatu behar duena. Hori da testuinguru historiko honetan erronka.

1.2. Krisia Estatu Frantsesean

1.3. Krisia Estatu Españolean

Burbuila lehertzeak berehalako ondorioak izan zituen Estatu Espainiarrean eta bereziki larriak gainera. 5 milloi langabetu baino gehiago daude gaur eta arrazto bat bera ere gauzak hobetuko direla esateko. Horrelakoa izan da azken hamarkadetako hazkundera, espekulazioa finantziario eta inmobiliarioa besterik ez. Horrek kale egin duenean Estatua orain 15 urteko datuetara bueltatu da, baina baldintza askoz ere txarragoetan herritarrek guztiz zorpetuak daudelako. Dena dela, ez gaitezen okertu, tartean sortu den aberastasuna ez da desagertu, eta krisia ez da guztientzat. Luxuzko merkatua handitu eta indartu egin da krisi urte hauetan.

Arazoak ez dira azken hamarkadan sortzen ordea. Estatuko ekonomiaren bilakaera egiturazko lau arazoren gainean eman da: atzerapena teknologian eta produktibitatean. Industria kapitalaren dependentsia finantza kapitalarekin. Korrupzioa eta ekonomia izkutua. Presio fiskal oso eskasa eta ondorioz, inbertsio publiko oso txikia.

Arazo hauek egiturazkoak ditu Estatuak, bere ereduaren osagaiak dira. Eta ez du sekulan benetako erabakirik hartu krisi hauek gainditzeko. Aukerak izan dituen bakoitzean berdin jokatu dute, motzeko irabaziei begiratu eta hauek lehenetsiz. Gutxi batzuen berehalako irabaziak lehenetsi dute beti, luzera arazoa sakontzea eta atzerapenak betiketzea zela jakin arren. Berdina gertatu da azken urteetan, barra barra aberastasuna sortu baina inolako iniziatiba eta ekimenik ez guzti hori benetako garapen eredu baten mesedetan jartzeko. "Gero gerokoak" jokabidea da proiektu politiko eta ideologikoak bazterrean zokoratzearen ondorio zuzena.

PSOEk bere eskutan izan du krisi honen aurrean bide berri bat hartzeko erabakia. Baina Estatuak egiturazkoak dituen arazoei benetan erreparatzea eta hauen aurrean bide propio bat egiten hastea baztertu zuen 2010an. Ausardia falta batzuentzat, sozialdemokraziaren porrotaren beste adierazpen bat gehienontzat. Gauza da gobernuan egin dituen 8 urteetan bere eskutan izan dituela estatuaren egiturazko krisien aurrean erabaki berriak definitiboki nagusitzeko aukerak eta alferrik galdu dituela bata bestearen atzetik. PPren mesedetan.

PPren gobernuak kudeatuko du beraz krisi hau eta bere hasierako neurriek ez dute eztabairako tarterik uzten. Adierazgarria da benetan aurreneko erabakia ikerkuntzarako eta garapenerako

inbertsioak murriztea eta hezkuntza erasotzea izatea. Estatuaren gaitza nagusia atzerapena denean, modernizaziorako eta eredu propio bat indartzeko ezinbestekoak diren elementuak baztertea konponbidetik urruntzea da. Baita langileriaren egoera larria guttiz okertzea ere. Hartu daitekeen biderik txarrena da produktibitatearen arazoa lan kostuak gutxituz zuzentzen saiatzea, inbertsioaren bidez eta garapen eredu berri baten alde eginez gaintitu beharrean. Esku lan merkearen lehiak langileak pobretzea ekartzen du, ez ordea garapen eta hazkunde ekonomikoa. Desregularizazioak eta sektore publikoaren desmantelamenduak zuzenduko du PPren politika beraz.

Lan merkatuaren desregularizazioan aurrera urrats nabarmen bat eman du. Legea ez ezik, negoziazio kolektiboa prozesu horren mesedetan jarri dutelako. Orain arte, lan erreformek inposatu dute desregularizazioa. Eta negoziazio kolektiboa izan da lan harremanak guttiz ez desregularizatzeko eta enpresarien boterea langileriaren borroka mugatzeko bitarteko bakarra. Erreformak paper hori deuseztatzen du eta langileoi aukera hori kentzen digu tresna lapurtzen digutelako. Gure borrokaren bidez regulatu ahal izan duguna negoziazio kolektiboaren bidez desregularizatzea da helburua. Abantaila berriak ematen zaizkio enpresariei, baina batez ere, erreformaren benetako funtsa sindikalgintzak eta langileok jarri ditzakegun muga eta oztupoak gaintitzea ziurtatuko dizkien baliabideak ematea da.

Sektore publikoari dagokionez, esan dugu jada Estatu Españoleko gaitz endemikoa dela bere garapen eskasa, inbertsio eta gastu publikoaren gabezi nabarmena. Ez ditu sekulan zerbitzu publikoak benetan garatu eta ez du sekulan garapen eredu sendorik bultzatu. Aurrena da langabezian Europako beste herrialdeei begiratuz gero, azkena gastu sozialean. Ez da krisiaren ondorioa ezta gutxiago ere, bere bilakaera historikoa markatu duen errealitatea baizik.

Pribatizazio prozesu bortitz eta izkutu bat egiten ari dira krisi honetan ere. Sistema publikoa guttiz murrizten ari dira herritarren bizi baldintzetan oinarritzekoak diren eremuetan: osasuna, hezkuntza, zaintza eta prestazioak. Pentsio sistemaren erreforma greba orokor batekin salatu genuen. Baina eraso ez da hor geratu: osasun sistemak aurrerantzean eskaini eta ziurtatuko dituen zerbitzuen zerrenda murriztuko dute eta kopagoaren arriskua begi bistan daukagu. Hezkuntza sistema publikoaren kalitatea nabarmen okertzen ari duten murrizketak inposatzen ari dira eta zaintzaren eremuan kokatzen den guztia bermatzeari utzi diote. Ez da hor bukatzen zerrenda, justiziara ere zabaltzen da eraso. Lan postuak suntsitzen eta lan baldintzak okertzen ari dira. Guzti horrek zerbitzuen kalitatean dituen ondorioekin. Baina are eta gehiago, zerbitzu publikoen garapena debekatu egin dute lege bidez.

Erreforma konstituzionalak eta estabilitate legeek politika hauek derrigorrezkoak egin dituzte gainera. Agindu konstituzionala da zor publikoa ordaintzea da lehenengo gauza, eskubideen eta herritarren ongizatearen ginetik. Sistema finantzieroak bermak exijitzen ditu finantziarioaren iturria berriro irekitzeko eta ez da nahikoa gaurko klase politikoak bere eskakizun guztiak betetzea. Markoak berak ziurtatu behar ditu badaezpada nozbait bestelako bide bat hartzeko prest dagoen alternatiba politikoa indartzen eta nagusitzen den. Badaezpada presio sozioalaren aurrean amore ematen duen arduradun instituzionalik dagoen. Sistemari buruz egin dugun gogoetan esan dugu legitimitate krisia sakontzen ari dela eta horrek etorkizunean zein bilakaera izango duen benetan kezkatzen duela. Izkutatatu eta ukatu egiten da, baina: zergatik horrelako neurri bat orain? Ezer ez aldatzea da krisia hasiz geroztik klase politikoaren eginkizun nagusia. Krisi honetan egin behar dena ongi lotua edukitzea, bai eta krisi honek aldaketaren bidea nagusitzen hastea ekiditea.

Bi politika hauen gainean Estatua zentralizatzen ari da PP. Inboluzio prozesu argi bat ematen ari da krisiaz baliatuz, marko konpotentzialen ginetik eta lurralde ereduari buruzko inolako eztabaidar demokratikorik gabe. Marko konstituzionalak aukerak ematen ditu eta estatutuetan ez dago horrelakorik ekiditzeko benetako mugarik. Ez dute burujabetzan aurrera egiteko balio, baina eredu dezentralizatuan atzera egiteko aukera eta bitartekoak ziurtatzen dizkio Estatuari. Estatuak ez zion eskumen horri uko egin.

Lurralde eredu guztiz lotua dago eredu ekonomikoaren. Marko juridiko politikoaren funtsa eredu ekonomikoak garatzeko bitartekoak ziurtatzea da sistema honetan. Hortaz krisi honek ezinbestez ekartzen du markoa berrikustea, marko juridikoa krisiaren aurrean egin nahi den bidearen mesedetan jartzea. Guk baino hobe azaltzen du hori Estatuko elite ekonomikoak "Transforma

España" izenburua duen informean. Krisiaren aurrean hartu behar diren neurriak zehazten dituen eta gobernuaren politikoak zuzentzen dituen informea da hori. Eta bertan jasotzen dira "eredu autonomikoa argitzeko" planak, "marca-pais" eta "sistema-pais" garrantzia azpimarratuz behin eta berriro. "made in Germany" jartzen duen guztiak du bere balio erantsia, izan zor publikoa edo izan kotxe bat. "made in Spain" jartzea gaur arazo bat da. *Hau garatzen dugun eztabaidatu behar da.*

Bukatzeko, ezinbestez begiratu behar diogu Europari PPren gobernuaren politikak izango direnak ulertzeko. Europa berrantolatzen ari da eta Estatu Espainiarra botere guneetatik zeharo kanpoan geratzeko arriskua benetakoa da. Bi abiaduretako Europaz hitz egiten dute eta Estatu espainiarrak behar den guztia egingo du erdigunetik ez erortzeko. Eta noski, horretarako ezin da herritarren egoerari eta behar izanei begiratu. Horretarako Alemaniara begiratu behar da eta Merkelen aginduak bete behar dira. Ulergaitzak diren diskurtsoekin izkutatu nahi duten errealitatea modu erraz batean azaltzea erraza da. Arazoa ez da ulertezina dela, onartezina dela baizik.

2. TESTUINGURUA EUSKAL HERRIAN

2.1. Krisia Euskal Herrian.

Krisiaren ondorioak eta bere abiadura ez dira berdinak izan Hego Euskal Herrian Estatuko egoerarekin alderatuz gero. Baina krisia bere bidea egiten jarraitzen du eta errealitatea gailentzen ari da.

Bertako garapen ereduak bere ezaugarri propioak izan ditu eta horrek baldintza hobeak eskaini ditu krisi finantzieroaren bere halako ondorioen aurrean. Baina Euskal Herriko lurralde guztietan neoliberalismoak zuzendu ditu azken hamarkadan egindako politikak eta bere emaitzak berdinak dira hemen ere.

Hemen ere, hamarkada terdiz luzatu den hazkunde garaia herritarren eta enpresen zorpetze handi baten gainean eman da. Europako Batasun Ekonomiko eta Monetarioak kredituak eskuratzeko baldintzak hobetu eta erraztu zituen. Eta nazioarteko eta Europako krisi finantzieroak horrek ekartzen dituen desoreka eta arazoak azkartu ditu.

Teknologia, berrikuntza eta formazioa dira garapen eredu sano eta indartsu baten ardatz nagusiak, behar beharrezkoak nazioarteko merkatuan lehiatzeko. Hemen aldiz, lan kostuak murriztea nagusitu da benetako inbertsioaren kontra. Hobetuzekin gertatu zena guztiz adierazgarria eta erabakigarria da. Langileen formakuntza ezinbestekoa dela errepikatzen dute krisiaren aurrean baina benetako formakuntza eredu bat eraikitzeko bidea indargabetu zuten ez dagoelako inolako interes errealik horretan.

Estatuak finkatzen du lan harremanen eredia eta horretaz baliatu dira bertako enpresariak prekarietatean oinarritutako lan merkatua ezartzeko. Lan baldintzak eta soldatak hobeak dira hemen, baina ez da enpresariak esku zabalagoak direlako, euskal sindikalgiaren errealitatea guztiz desberdina delako baizik.

Arazoa berdina da. Lehiatzeko gaitasuna prezioetan kokatuz eta horretara mugatuz ez dago lan kostuak murriztea beste biderik. Beraz langileria eta herritarrak pobretzen ari dira hemen ere. Baina gainera guztiz agortua dagoen bidea da hori, guk baino gehiago eta merkeago produzitzen duten herrialde boteretsuak daudelako.

Beraz arazoak berdinak dira, euskal herrian krisia ez da eratorria, bertako eredu ekonomiko eta sozialaren gaitz estrukturala da. Gure etorkizun ekonomiko eta politikoa arriskuan jartzen du eta nola ez, langileriaren eskubide guztiak auzitan.

Hau garatu behar da baina arreta non jarri nahi dugun erabaki behar dugu horretarako.

2.2. Euskal langileriaren egoera

Euskal langileriak pairatzen duen egoera deskribatzen duten elementuak hiru dira: prekarietate soziala, egiturazko langabezia eta jendartearen pobretze orokorra.

2.2.1.1. Prekarietate soziala

Lanaren prekariedadetik harago, egiturazko prekariedadea da bizi duguna. Lan prekariedadea, prekariedade soziala,... langileen eguneroko bizitzaren atal guztiak bustitzen dituen eredia da prekariedadearena. Hau guztia, garapen kapitalistaren, globalizazio ekonomikoaren, ekoizpen eta zabalpen prozesuaren modernizazioaren eta lanaren desarautzearen ondorioz azkartzen ari da. Lan eta ekonomia harremanen eremuaz haraindi kokatzen da prekariedadea, eta bizitzaren esparru guztiak hartzen ditu. Prekariedadea, zapalkuntza baliabidea bihurtzen da kapitalarentzat eta klase borrokan bere baliabidetzat dute, egonkortasun irizpide oro ezabatuz eta langileengan ziurgabetasun egoerak sortzen duen ahulezia bere intereserako probesten du: lana dutenei, lanaldiaren zabalpena, soldaten murrizketa eta malgutasuna ezartzen zaizkie, azpikontratazioa orokortu egiten da, behin-behinekotasuna erabat zabaldua dago eta aldi berean oso ohikoak dira jada iraupen laburreko kontratuak (ordu gutxitakoak ere). Bestalde, kaleratzeen merkatzea bideratzen ari da, enpresariei kostu hori gutxitze aldera.

Lan egiteko baldintzetan presio mekanismoak indartzen ari dira, langileen kaltetan. Indibidualizazioa indartzen ari dira lan harremanetan lan eredu berrien ezartzearen bidetik, langilearen isolatzea bultzatuz kolektiboarekiko, lan erritmo oso intentsuak behartuz. Honek guztiak klase harremanen desitxuratzea eragiten du. Desitxuratzeko honetan indar ideologiko handia egiten ari dira kontraesanen eragitea bilatuz langile klasean: langile publikoen eta enpresa pribatuen ari direnen arteko apurketa bilatzen dute, langile etorkinen eta bertakoen arteko konfrontazioa elikatzen ari dira, lanpostu finkoa dutenen eta behin-behinekoko dutenen arteko ezberdintasunak azpimarratzen dituzte eta soldatapeko lana duten eta langabetuak direnen arteko zatiketa ere sortu nahi dute. Jakina, badira aurretik ere presente zeuden bestelako bereizketak: lan kualifikatua eta ez kualifikatua egiten dutenen artekoa, eta lan produktibo eta erreproduktiboaren artekoa. Kapitalak langileak esplotatzeaz gain, hau guztia ahalik eta erraztasun gehiagorekin egitea bilatzen du eta langile klasearen zatiketa langile kontzientziaren ahultzea xede estrategikotzat du.

Lan egiteko eredu hauek ondorio zuzena dute langileen osasunean. Esplotazio bide berriek lan osasun arazo berriak sortzen dituzte. Kapitalismoak arestian aipatu ditugun lan eredu eta lan erritmo berriekin, lan gaixotasun berrien sorrera eragin du, bereziki estres eta antsietatea oinarri dutenak. Ez dugu erlatibizatu nahi beste garai batzuetan lanak eragin duen gaixotasun eta sufrimendu maila langileengan, baina azpimarratu nahi dugu ere, egun geroz eta pertsona gehiago sufrimenduz bizi dutela euren lana, eta hau dimentsio handiko arazo sozial gisa ikusi behar dugu. Antolaketa eta zuzendaritza ereduaren aldaketaren ondorioz, egonkortasun eza ematen da langileen artean eta euren arteko harremanetan lehiakortasuna eta indibidualismoa indartzen da.

2.2.1.2. Egiturazko langabezia eta bazterketa soziala

Sistemak, krisiak egoera hau azkartu eta gordindu egin duelarik, egiturazko langabeziara kondenatu ditu kolektibo batzuk. Langabezia ez da horientzat trantsizio egoera bat, egoera iraunkorra, egiturazkoa izaten ari da. Kolektibo hauen artean daude, esaterako, 50 urtetik gorako emakumeak eta kualifikaziorik gabeko langileak (horien artean asko, urtetako lana galdu duten gizonak). Egiturazko langabezia honek lehen mailako arazo soziala da egun Euskal Herrian.

Egoera honetan, bazterketa sozial eta ekonomikoa nozitzen duten kolektiboak ere ugaltu egin dira. Zalantzarik gabe, egiturazko langabeziak eta prekariedade sozialak bazterketaren hazkunderako baldintzak hedatu dituzte.

Krisiaren testuinguruan langabezi tasen hazkunde historikoa ezagutzen ari gara, aspaldian ez bezalako pertsona kopurua daudelarik lan gabe. Hau, gainera, babes sozialerako baliabideek ere murrizketa erraldoia jasan duten garaian gertatzen da. Inolako prestaziorik jasotzen ez duen langabetuen kopurua ere ikusgarri handitu handitu da. Enplegu suntsiketak eta langabeziaren igoerak ez dio, errealki, ekonomiaren beharrei erantzun, enpresarien mozkinak handitzeko joerari eta zerbitzu publikoetan ezarritako murrizketei baizik. Hortaz, arazo ekonomiko eta sozial handia sortzeaz gain, onartezinak diren arrazoiak tarteko gertatu da hau guztia.

Kapitalak egungo egoerari, egungo etekinari begira dago soilik. Horrek sakoneko arazoak sortu ditu esparru ezberdinetan. Naturaren ustiatze neurrigabekoa sustatzen ari da, etorkizun hurbilari ere begiratu gabe. Lasterketa ero horretan herrien garapen ekonomikoa bazterrean utz daitekeen

elementu gisa ere ulertu du sistema kapitalistak. Egun, mendebaldeko jendartearen geroa ere kolokan jartzen ari da, gazteei etorkizuna ukatzen dien heinean. Esan bezala, langabezi tasa handiak eragin dira berehalako mozkinak mantentzeko edo handitzeko, baina bereziki larria da gazteen langabezi tasak, eta lan duina eta finkoa izateko baldintzen kaskartzea, belaunaldi oso bat gazte garaian soilik ez, baizik eta bizitza osorako prekariedade egoera batean bizitzera zigortuz. Prestatutako euskal langile gazte askok atzerrirako, emigraziorako bidea hartzen ari da

Emakumeek egoera honen guztiaren eragina modu bortitzagoan pairatzen dute. Lan prekariedade jasaten dute, lanaldi bikoitzen ondorioak pairatzen dituzte, pobrezi tasa handienak bizi dituzte, etxebizitza eskuratzeko zailtasun handiagoak dituzte,... Azken finean ekonomikoki eta sozialki baztertua izateko aukera gehiago izaten dituzte emakumeek.

2.2.1.3. Pobretze orokorra eta aberastasunaren banaketaren azterketa

Krisi ekonomikoaren testuinguruan kapitalismoak garabidean zuen ildoaz azkartu du. Mozkinak handitzearen eta aberastasunaren pilatzeko dinamikak sakoneko egoera eraldatzen ari da, orain arte ezagutzen genituen arazoak handituz eta gordinduz.

Batetik, euskal jendartean egiturazko pobrezia deitu dezakegunaren etengabeko hazkundea aipatu behar dugu. Egiturazko pobrezia ezaugarri bezala azpimarratuko genituzke lan egonkoraren, etxebizitzaren eta modu duinean bizirauteko diru iturrien falta. Harrigarria gerta badaiteke, egun, euskal jendartearen heren bat dago egoera horretan.

Aberastasuna gutxi batzuen eskutan neurrigabeki pilatzeko joera aspaldikoa bada ere, orain, aldiz, joera hori biderkatu egin da, oreka mantentzeko irizpideak baztertuz. Soldatak murrizteko lasterketari ekin diote, erosketa ahalmena nabarmen jeisten ari delarik modu orokor eta ikusgarrian. Halaber, soldata altuen eta baxuen arteko aldea handitzen da. Esaterako, 2002-08 artean errenta altuenak %114 hazi ziren (Bizkaia aberastasuna gehien kontzentratzen duen herrialdea da, %126rekin), soldata eta pentsioen ahalmena gutxitu egin den bitartean. Halaber, EAEko populazioaren %1,67k, aberastasunaren %44,78 kontrolatzen du. Aldiz, populazioaren %8ak hileko 500 euro baino gutxiagoko diru sarrerekin bizirautean du. Eta %36,33ak pobrezia mugatik behera kokatzen da.

Paraleluki, zorpetze maila handia gertatzen ari da, zorpetze familiarra eta instituzionala hain zuzen ere. Zorpetzeak, lan esplotazioaren aurrean otzan agertzea eragiten du.

Langileen pobretzearen beste irudi batzuk azpimarratu behar ditugu ere: Gutxieneko Soldata Interprofesionala pobrezia mugaren azpitik kokatua dago, langabezia prestazioak ere ildo berean kokatzen dira eta pentsionista gehienek bizirauteko arazoak dituzte, ... Halaber, osasungintza eta irakaskuntza zerbitzuen pribatizazioa, garraio publikoaren garestitzea eta oro har zerbitzu publikoen murrizketa, pobrezia sendotzen duten elementuak dira, aberastasunaren banaketa desorekatuaren adibide direlarik ere, administrazio eta gobernuak diru publikoa behar eta zerbitzu publikoetan inbertitu beharrean, banka eta enpresa handien interesen salbamendura bideratu dituzten heinean.

2.3. Klase subjektuaren egoera

Belaunaldi bakar batean Euskal Herriaren sare sozioekonomikoan aldaketa sakona eman da, estrategikotzat jotzen zen sektore industrial sendoa baztertuz eta zerbitzuen sektorean oinarri izatera igaroz. Aldaketa honek langileengan ezinbesteko ondorioak izan ditu, prekarizatutako lan baldintzak pairatzera pasa direlako eta abiadura bizian gertatu diren aldaketa horietan, langileek bere klase izaera osoan euren burua ezagutzeko arazoak dituztelako. Norabide horretan ari da kapitalismoa, klase kontzientzia ahuldu eta desitxuratu asmoz

Objektiboki esan dezakegu Euskal Herrian langile klasea egon badagoela, populazioaren gehiengoa langileak garelarik. Objektiboki esan dezakegu ere, klase borroka emateaz gain, indartsu ematen ari dela Euskal Herrian, aurretik esan bezala modu bortitzean ematen delarik gainera. Baina, halaber, objektiboki esan dezakegu ere klase kontzientziarekiko identifikazio faltak kapitalismoaren kontrako borroka iraunkorra garatzeko oztopoa dela.

Prekariedadearen azterketan esan bezala, badira langile klasea subjektu gisa indartzeko bi oztopo

azpimarragarri: lan harremanak kudeatzeko eredu berriak eta prekarietateak sortzen duen beldur eta asimilazioa.

(SOZIALISMONEN NONEN)

Klase eta genero harremanen eta orekaren aldaketa sakona eman da, gero eta baliabide eta aberastasun gehiago jarri delarik botere finantzieroen eta kapitalaren eskuetan, herri eta langile klasearen diru sarreren kaltetan, zorpetzea handituz eta herri klaseek jasotzen duten babes soziala murriztuz. Harreman hauek politikoki eta juridikoki ezartzen ari dira, lege izaera emateko egungo desoreka sistemiko horiei.

Klaseen arteko harremana ekonomiaren ikuspuntu hutsetik ezin dugu ikusi. Egitura politikoa, mendebaldeko estatu burgesak klase desoreka ezartzen du eta egun, hori areagotzen ari dira: botere guneen urruntasuna, negoziaketa kolektiboaren ezintasuna, lan merkatuaren desarautzea eta estatuaren lege eta arauen moldaketa kapitalaren interesen babeserako, besteak beste.

3. LAB TESTUINGURU HISTORIKO HONETAN

3.1. Gure estrategia zuzenduko duten oinarriak

Kapitalak zuzentzen ari duen trantsizio baten erdian gaude. Gure lan eta bizi baldintzak nabarmen okertzen dituzten erabakiak hartzen ari dira; baina are eta gehiago, gure etorkizuna goitik behera baldintzatuko duten erabakiak hartzen dituzte egunero. Guri bizkarra emanez, guk inolako parte hartzeko aukerarik eduki gabe.

Bizi dugun egoera ez da koiunturala, egiturazko krisi bat bizi dugu, egiturazko aldaketak ekarriko dituen. Sistema finantzieroa kontrolatzen duen botere ekonomikoa da trantsizio hau zuzentzen ari dena, eta hor ez dago inolako konponbiderik langileriaren arazoentzat. Sistema kapitalistaren berformulazio bortitza bultzatzen ari dira, aberastasuna metatzen jarraitzea eta herritarren eskubideak ziurtatuko dituen eredu soziala bateraezinak egin dituzte. Eredu sozialaren transformazioan eredia indargabetzea besterik ez dago.

Gobernuek ekonomiaren gaineko kontrola galdu dute, baina irmo eusten diote sistema betikotzeko erantzukizunari. Botere ekonomikoaren zerbitzura jarri dituzte Estatuetak bitarteko eta baliabide guztiak. Kapitalak bere krisia gainditzeko neurri bortitzak behar ditu eta gobernuak dira bortizkeria bideratzen ari direnak. Gaur ez dago gobernu hauen eskutik langileriaren arazoak konpontzerik, gobernuak aldatzea langileriaren borrokaren premia bat da.

Langileriaren klase interesak transformazio egoera honetan defendatzea sindikalgintzaren lehen tasun nagusia da. Baina are gehiago, herritarrei alternatiba bat eskaini nahi dien eragile ororen oinarritzko premisa da. Ezkerreko proiektu politikoak eraberritzea, balore, praktika eta konpromiso politiko eta sozial berriak bereganatzea behar beharrezkoa da gaurko eredu politiko antidemokratiko eta antisoziala borrokatzeko.

Sindikalgintza sistema honek eskatzen duen alternatiba eraikitzeke ezinbesteko zutabea da. Langileak antolatzeke bitarteko estrategikoa garelako, langiliaririk gabe ez dago alternatibarik. Eta eredu politiko eta sozioekonomiko berri baten eraikuntzan langileriaren parte hartzea bideratzeko eta ziurtatzeko funtsezko bitartekoak garelako. Sindikalgintzaren autonomia eta antolakuntza gaitasunatik konpromiso politiko eta sozialak bereganatzea da funtzio hau langileriaren mesedetan betetzea ziurtatzen dutenak.

Sindikalgintzak kapitalari boterea borrokatu behar dio fase historiko honetan. Unilateraltasunari mugak jarri behar dizkiogu langileriaren mobilizazio, presio eta borrokarako gaitasunarekin. Lantokietan eta lantokietatik kanpo. Erresistentziak bere balio osoa du gure eskubideak banan banan indargabetzen ari direnean. Aldaketa politiko eta sozialak eragiteke behar beharrezkoa da gaurko bilakaerari mugak jartzea.

Eta zalantzarik gabe, aldaketa politiko eta sozialerako prozesuetan ezinbestekoa da sindikalgintzaren parte hartzea eta inplikazioa. Ez dago aldaketak bere kabuz eragiteke gaitasunik duen eremurik, aldaketak eremu politiko, sozial eta sindikalaren arteko aliantzatik etorriko dira. Norberaren indarrak eta eraginkortasunak biderkatzeke aukerak emango dizkigun proiektu amankomun eta konpartituak behar ditugu. Guztion erantzukizuna da langiliarri alternatiba hori

eskaintzeko ahaleginak egitea.

3.2. Eredu berri bat eraikitzea. LABen alternatiba.

3.2.1. Eredu sozioekonomiko berri baterako oinarriak

Burujabetza merkatuaren eta Estatuaren aurrean

Burujabetzaren aldeko borroka duen dimentsio berritua herrien eta herritarren etorkizuna merkatuen eta botere ekonomikoaren interesen arabera erabakitzen delako. Burujabetza ekonomiaren kontrol politiko eta soziala berreskuratzea da. Burujabetza eskakizun demokratiko bat ez ezik, demokraziaren alde borrokatzeko bidea egitea da.

Burujabetza bi estatuaren aurrean gure herriaren etorkizuna ziurtatzeko eta beste eredu bat eraiki ahal izateko gaur Estatuaren papera merkatuaren diktadura ziurtatzea besterik ez denean. Burujabetzaren aldeko borroka gaur duen balio ekonomiko eta soziala.

Burujabetzak ziurtatu behar diguna: erabakitzeo aukera edukitzea, erabakitakoa aurrera aterako bitarteko politiko, instituzional eta juridikoak edukitzea.

Ekonomia herriaren zerbitzura. Aberatsenak gehiago aberasteko eredu ekonomikoaren kontra, eredu ekonomikoaren helburua herriaren eta herritarren garapena ziurtatzea izan behar du. Horrek gaur zer esan nahi du:

Lana kapitalaren ginetik. Lanaren balioa eta aitortza eredu berri baterako oinarriak. Balio duen bakarra enpresa etekinak diren bitartean, eta saritzen eta zaintzen den bakarra enpresa ekimena den bitartean ez dago aldaketarik. Guztia horren zerbitzura. HAU ALDARRIKATZEA ETA BALIOZTATZEA FASE HONETAN DUEN GARRANTZIA AZPIMARRATU BEHAR DA.

3.2.2. Eredu berriaren oinarria, krisiari aterabide propio eta demokratiko bat ematea

Krisitik ateratzea da gaur premia nagusia. Eman behar diogun irtenbidearekin finkatuz eredu berriaren oinarriak eta zutabeak. LABetik krisi hau irtenbide propio batekin gainditzea proposatzen eta eskatzen dugu. Irtenbide propio eta demokratiko bat eraikitzea aldarrikatzen dugu gure etorkizun ekonomiko eta soziala arriskuan jarri duen krisi honen aurrean. Eta sistemak bere burua betikotzeko hartu duen bideak gure eskubide guztiak auzitan jartzen dituelako.

Irtenbidea propio bat aldarrikatzen dugu. Bertan eraikitakoa, bertako egoerari begiratzuz eta gure herriaren ezaugarri ekonomiko, sozial eta politikoetatik abiatuz eraiki behar delako. *Eta propioa estatuetatik eta europatik inposatutako bidearen aurrean.*

Eta irtenbidea demokratikoa izan behar dela aldarrikatzen dugu LABetik. Demokratikoa izan behar du irtenbidea eraikitzeo bidea, baita irtenbidea ere. Herritarrei eta langileei erabaki politiko eta ekonomikoetan parte hartzeko aukera ziurtatzea funtsezko baldintza da benetako irtenbide bat eraikiko badugu.

Ireki den garai politiko berrian bete betean kokatzen den proposamena dela deritzogu. Herritarrei iruzur egitea da bide demokratikoak exigitzea, horiek direla bakarrak esatea, horiek nagusitu izana goraiatzea. Eta guzti horren ginetik, dugun arazo politiko nagusiaren aurrean bide demokratikoak ukatzea.

Euskal Herriak behar duen erantzukizun ariketa egitea litzateke. Behin eta berriro entzun dugu krisi honen aurrean goi mailako erabaki politikoak hartu behar direla, herri erabakiak (decisiones de pais) hartu behar dira. Hori da hain zuzen proposatu eta eskatzen dugu: herri erabaki bat hartzea herri estrategia batekin krisia gainditzeko.

3.2.2.1. Irtenbide propio eta demokratiko baterako ardatzak

- Euskal Herriak du erabakitzeo eskubidea.
- Garapen eredu berria behar da, gure lurraldeetatik eta lurraldeetarako.
 - o Gure lurraldearen eta bertako bitartekoen kudeaketa eta kontrol "eficiente". (gaurko

desegituraketa politiken gainera)

- Euskal Herriak ekonomiko eta sozialki egituratzeak duen balio erantsia bultzatu eta garatu.
 - Produkzio ehuna garatzeko inbertsio publiko eta pribatua.
 - Eredu sozioproduktibo berria eraiki prekarrietatan, diskriminazioan.. oinarritutako ereduaren aurrean.
 - Aberastasunaren banaketan oinarritutako garapena.
- Lan harremanetarako eta babes sozialerako eredu definitu eta eraiki behar dugu.
- Egonkortasunaren oinarria enpleguaren kalitatean dago.
 - Enplegua sortuko duen lan harremanetarako eredu.
 - Oinarritzko errenta enplegua ez dutenentzat

3.2.2.2. Elkarrizketa soziala

Euskal eragile eta instituzioen esku dago horrelako irtenbidearen mesedetan erabakiak hartuz bide hau jorratzea. LABen iritziz ezin dugu hau aukera bezala hartu, Euskal Herriaren gaurko egoeraren eta etorkizunaren aurrean bereganatu behar dugun erantzukizuna da. Krisia gainditzea guztion erantzukizuna da, guztion konpromisoak eskatzen ditu. Hautu politiko bat da krisi honen aurrean euskal herriarren eta herritarren interesak gailentzea interes propio eta partikularren gainetik. Gehiago interes horiek izan direnean krisi hau sortu eta herritarrek gaur egoerara ekarri gaituztenak.

LABetik behin eta berriro salatu ditugu gobernutik eta patronaletik sindikatuoei egin zaizkigun eskaerak krisi honen aurrean bat egiteko eta guztik norabide berdinean arraun egiteko. Eskaera horien atzean euren politikak babesteko eta aurrera ateratzen laguntzeko eskaera besterik ez da egon. Gobernuak ez dute inolako asmorik izan krisiaren aterabideaz benetako eztabaida bat sustatzeko, aterabideaz benetan langileriarekin hitz egiteko, negoziatzeko eta adosteko.

Gobernuak izan dira langileriarri hitza eta parte hartzea kentzeko erantzukizuna bereganatu dutenak botere ekonomikoaren hitza besterik ez entzuteko. Horren ondoan, patronala bere kasa aritu da krisia kudeatzen, krisiaz baliatzen abantaila berriak ateratzeko. Gobernuak euren eskakizun guztiak bideratu dituzte politika instituzionalekin eta euren neurriko lan merkatua finkatu dute erreformaz erreforma.

Krisi honen aurrean aterabide propio eta demokratiko bat eraikiko badugu behar beharrezkoa da elkarrizketa soziala sustatzea, antolatzea eta garatzea. Behar beharrezkoa da sindikalgintzaren parte hartzea erabaki instituzionaletan. Arduradun instituzionalen eta patronalaren esku dago erabaki berriak eta konpromiso zehatzak hartuz bide hori irekitzea Euskal Herrian.

LABetik eskaera zuzena egiten dugu Euskal Herrian elkarrizketa soziala posiblea egingo duten erabakiak hartzerako instituzio guztiei, baita patronalei ere.

3.3. Euskal sindikalgintzaren papera fase honetan.

Behin eta berriz aipatu ditugun eta egungo egoera markatzen duten ardatz nagusien (krisi ekonomikoa eta prozesu politiko demokratikoa) arabera bidegurutze estrategikoan dago Euskal Herriko sindikalgintza. Egoerak sakoneko aldaketa bizi du eta, sindikatu bakoitzak hartzen duen posizio eta jarreraren arabera, agerian geratzen da bakoitzaren eskaintza estrategikoaren eta eredu sindikalaren baliagarritasuna.

Euskal Herrian txertatuta dagoen sindikalismo espainiarrak eskaintza estrategikorik gabe ageri da euskal langileen interesak defendatzeko garaian. Langileen defentsaren gainera espainiar estatuaren babesle gisa agertzen du bere burua, lurralde zatiketaren eta euskal langileriarren zatiketaren ardura ere hartzen duelarik. Halaber, bere eredu sindikal paktista eta menpekoak, krisiak sortu dituen egoera lazarrienen aurrean erantzuteko ahalmenik ez duela eta agortuta

dagoela erakutsi du. Kapitalismoak klaseen arteko harremanen erabateko aldaketa ezarri nahi du eta eredu sindikal horri aitortzen zitzaion funtzio sozial eta politiko txikiari ere bere espazioa agortu egin zaio, "bake soziala" negoziatzeko funtzio hutsa aitortuz.

Euskal Herrian txertatuta dagoen sindikalismo frantsesak, espainiarraren aldean bestelako borroka jarrera bat erakutsi du. Baina, ikuspegi zentralista jakobinoa hainbeste nagusitzen da haien ildoan oztopo bat suposatzen dutela euskal sindikalgintzarentzat eta euskal langileriaren subjektua eratzeko. Oztopotzat jotzen dugu, Ipar Euskal Herriaren egituratzea bazterten duelako eta estatu zentralaren negoziaketa kolektiboaren arabera funtzionatzen duelako soilik. Halaber, erakutsi borroka jarrerak ezin du ezkutatu ere bestelako eredu alternatiboa formulatzeko edota bultzatzeko ezintasun estrategikoa dutela (afiliazio tasak Europako baxuenetakoak dira, eta arrazoi ekonomikoen ondorioz emandako azken oldartze sozialak sindikatu gabeko sektoreek protagonizatu dituzte, sindikatuen gabeziak agerian utziaz).

Euskal sindikalgintza hautu estrategiko baten aurrean dago, bidegurutze estrategiko baten aurrean. Kapitalismoari erantzun eta borrokatu nahi izan dion eredu sindikal batekin, kapitalismoaren esanei jarraituz estatuetatik datozen erreforma, murrizketa eta erasoei erantzuteko dinamika soil batean murgildu, euskal markoaren aukera erreala suntsitzera datorren bidea dela kontutan izanik; edo, eman beharreko erantzuna bestelako eredu sozioekonomikoa eraikitzeo aukera eman behar digun prozesuan kokatzea eta, hortaz, prozesu horren garapenean lehen mailako eragile bezala parte hartuz.

Esan gabe doa, edozein kasutan ere euskal sindikalgintzak ere bere eredu sindikalak dituen hutsuneei edo egoera berri hauek agerian utzi dituzten gabeziei erantzuna ere eman behar diela, gure ereduak ere aukera estrategiko berriak eraikitzeo eta egungo eraso erraldoiei aurre egiteko bere burua eraldatu beharrean baitago. Onar dezagun sindikatuok langileengana iristeko, langilean antolatzeo, langile klasearen interesak modu eraginkorrean defendatzeko ditugun arazo eta gabeziak hor daudela eta egungo egoeran zorrotzu egiten direla eta gure erantzukizunari hel diezaioغو euskal langileak subjektu bezala egituratzeko.

3.3.1. Erronka nagusiak.

Euskal sindikalgintzak kapitalismoak langile klasearen egoera bortizki okertuz egiten ari den birmoldaketa estrategikoari tamainako erantzuna artikulatzeko erronka du bere aurrean. Hori da, zalantzarik gabe, euskal sindikalgintzaren erantzukizun behinena. Erronka hori ezin dugu erantzun klabe hutsean kokatu, alternatiba baten eraikuntzaren bidean baizik.

Halaber, ezin dugu ahantzi, ordea, hau guztia testuinguru politiko jakin batean gertatzen dela. Prozesu demokratikoak definitzen duen testuinguru politikoan, alegia. Gure alternatiba eraikitzeo aukera ematen digun prozesua. Izan ere, burujabetza politiko, ekonomiko eta sozialaren beharra dugu langileen interesen eta beharren jabe izango den euskal estatu sozialista eraikitzeo.

Euskal sindikalgintzaren erronka bada prozesu demokratikoari ikuspegi sozioekonomikoa ematea. Euskal sindikatuok jakin badakigu gatazka politikoa, gatazka ekonomikoa dela. Gure ardura da euskal jendartea horren kontziente bilakatzea eta Euskal Herrian eman behar diren soluzio demokratikoen artean, langileok behar dugun eredu ekonomiko demokratikoa lortzea.

Ondorioz, euskal sindikalgintzak badu prozesu demokratikoan subjektu bezala dagokigun lekua hartzeko beharra eta prozesuan aitortua izateko beharra. Egoera honetan gure autonomia gordeaz, baina prozesuan inplikazioa osoz aritzeko erantzukizunez.

Aurretik esan bezala, baditugu etxeko lanak ere. Sindikalgintzak bere erronka horiei heldu ahal izateko, langileriarengana modu zuzenean eta eraginkorrean iritsi behar dugu. Euskal langile mugimendua berrosatu behar dugu arreta berezia ipiniz lurraldetasunaren ardatzari eta langile sektore zehatzen antolaketari erreparatuz (emakumeak, prekarioan dauden langileak, langabetuak, baztertuak dauden sektore sozialak, lurralde zatiketaren eraginak gainditu...). Sindikatuak klase borrokarako bitartekoak izan behar dugu.

3.3.2. Euskal langileei eta sindikatuei eskaintza. Berregin behar da.

LABek eskaintza nagusia euskal langileei egiten die: langileriaren Euskal Herriaren eraikuntzan

parte hartzeko eskaintza luzatzen diogu euskal langile orori. Euskal Herriaren aldaketa politiko, ekonomiko eta sozialerako prozesuaren protagonista euskal herriak izan behar du, euskal langileriak izan behar du. Nolako Euskal Herria sortu nahi dugun erabaki behar dugu eta horretarako ezinbestekoa da lana, borroka eta inplikazioa.

Krisiaren egoera gogor honetan, langileok datorkiguna onartzea edo borrokatzea ditugu aukeran, eta aurrera urratsa egiten dutenentzako erantzun soilean geratu edo alternatiba propio batekin modu kolektiboan lan eta borroka egiteko hautua dago. LABek eskaintza bestelako Euskal Herria baten alde, bestelako eredu sozio ekonomiko baten alde, herritarron hitza eta erabakia oinarri izango duen bestelako Euskal Herriaren alde inplikatzeko prest dauden langileei luzatzen die.

Gure ustez, euskal sindikalgintzak oro har, ez bakarrik LABek, erronka bera du. Krisi ekonomikoak sortu duen emergentzia egoerari herri gisa erantzuna emateko erantzukizunari eutsi behar diogu, sindikatu bakoitzaren interesen gainetik herri konpromisoari eutsiz eta aurrez esan dugun bezala euskal langileei inplikatzeko eta borrokatzeko aukera zintzoa eskainiz. Baldintza horietan elkarrekin bidea egin ahi duen sindikatu orori batera joateko eskua luzatzen diogu.

4. GURE ESTRATEGIAREN ARDATZAK

Euskal Herriak eredu berri bat eraikitzeke bidea hartzea da gure helburua. Eredu berriaren oinarriak definitzea, eredu eraikitzeke bitarteko politiko eta instituzionalak eskuratzea, eta bide hori egitea agenda politiko eta sozialaren ardatza bilakatzea.

Berriro diogu, Euskal Herrian badaude baliabideak eta eragileak eredu berri bat eraikitzea helburu izango duen prozesua egiteko. Bide hori hartzeko eta jorratzen hasteko akordio nazional bat adostea proposatu dugu. Posiblea da hautu horren alde eginez gero. Borondatea da falta dena. Beraz aldaketak behartu egin behar ditugu. Bide berri bat nagusituko bada gehiengoaren borondatea gailentzea lortu behar dugu, gutxi batzuen asmo eta interesen gainetik.

Bide berri bat hartuko badugu konfrontazioaren eta borrokaren emaitza izango da. Aldaketa politiko eta sozialak aldarrikatzen ditugunok egoera berriak sortzeko gai garelako eta erabaki berriak hartzera behartzen ditugulako izango da. Akordioak eraiki behar dira eta adostasun markoak behar ditugu, gauzak aldatu nahi ditugunok behar ditugu. Eta sektore ekonomiko eta politiko ezberdinen arteko akordioak behar dira ere. Baina horiek ez dira gure eskakizunei uko egiten diegulako emango.

Aldaketak gure borrokaren emaitza izango dira. Geroz eta indar gehiago batuko dituen proiektu bat behar dugu horretarako. Aldaketak burutzeko aukerak emango dizkigun prozesua azkartzea behar dugu horretarako. Eta gure klase estrategia gaurkotzea eta indarberritzea behar dugu hori egin ahal izateko. Horiek dira LABek fase honi begira finkatzen dituen helburu nagusiak eta gure estrategia zuzenduko duten ardatzak.

4.1. Euskal Estatu Sozialista

Proiektu politiko sendo bat edukitzea behar beharrezkoa da krisi ideologiko eta politikoari aurre egiteko. Baita edukien eztabaida irabazteko ere. Krisi honen irtenbidea guztiz politikoa izango da, proiektu politikoen konfrontazioa egon behar da beraz. Eredu berri bat eraiki nahi dugunean, eraikuntza prozesua zuzendu behar duten erreferentzia eta hizpideak finkatu behar ditu proiektuak gainera. Gero gorokoak ikuspegia gailentzea ekiditen du proiektu sendo eta argi bat edukitzeak, eta beribiziko garrantzia du ikuspegi horrekin aldaketarako indarrak itotzea bilatzen dutenean.

Euskal Estatu Sozialista, hori da gure erreferentzia estrategikoa. Gure alternatiba estrategikoa da, Euskal Herria politikoki egituratzeko eta sozialki kohesionatzeko. Euskal estatu sozialistak euskal ekonomiaren kontrol politiko eta soziala berreskuratzea ahalbidetu behar du, Euskal Herrian bizi eta lan egiten dugun pertsona guztien interes kolektiboaren zerbitzura jarriaz.

Euskal Estatu bat eraikitzea alternatiba erreal eta bideragarri bat da. (DAFOarekin osatu)

Sozialismoa ulertzeko modu ezberdinak daudenaren jakitun gara. Beraz, honek esan nahi duenaren sakontze eta ereduaren zehaztatzearen beharra aitortzen dugun, baina, halaber, printzipio batzuk berretsi nahi ditugu. Sozialismoak, estatua langile klasearen zerbitzura egotea

esan nahi du eta ekonomiaren kontrol politiko eta soziala egon behar da estatuaren partetik, lehen adierazi bezala. Azken honek, eremu ekonomiko eta sozio laborean erabaki ahalmena eta egikaritzeko tresna efektiboen jabe izatean datza.

Egungo estatu ereduaren aurrean bestelako alternatiba eskaini beharko du euskal estatu sozialistak: jendartea antolatzeke, instituzio sozialak ezaugarritzeko, parte hartzeko eta erabakitzeko eredu demokratiko batekin eta kultur eta hizkuntz eredu euskaldun batekin. Aldarrikapen bat baino, euskal estatu sozialista prozesu baten bidez eraiki beharreko proiektua da, martxan dagoen eraikuntza prozesua.

Prozesu horretan, ekologia, naziotasuna eta feminismoa ardatz nagusi bezala kokatu behar ditugun kohesio elementu berritzaileak dira, egungo estatu eredu eraldatzeko eta euskal estatu sozialista eraikitzeke ezinbestekoak diren ardatzak. Ekologia, lurraldekin eta ingurumenarekin jendarteak eraiki behar duen oreka da. Naziotasuna, lurralde batasuna egungo errealitateetik eraikitzea da. Feminismoa, sexuen arteko lan banaketa eta botere harremana eraldatuko duen jendarte eredu eraikitzeke gure iparra izango da.

4.2. Aldaketa politiko eta sozialerako prozesua azkartu eta indartu behar dugu.

Krisi ekonomiko gaitzea bide oso baten emaitza izango da, sakoneko aldaketak burutzeko helburuarekin jorratu behar dugun prozesu politiko baten emaitza hain zuzen ere. Gaur abian da prozesu hori eta prozesu horretan dago Euskal Herrian benetako aldaketak burutzeko aukera. Prozesua indartu, gorpuztu, edukiz bete eta positiboki baldintzatu nahi dugu.

Erabakitzeko eskubidea eskuratzea, eskubide demokratikoak ziurtatzea edota eredu politiko instituzional berri bat finkatzea beharrezko urratsak dira krisiaren aurrean alternatiba oso bat eraiki ahal izateke. Gatazka politikoa konpondu behar da urrats guzti hauek emateke; izatez, horrelako urratsak eman ahal izatea da gatazkak behar duen konponbide demokratikoa.

LABen iritziz, gatazka konpontzeko eta marko juridiko eta politiko berria adosteko abiatu den bidean dago eredu berri bat eraikitzeke aukera. Ezinbestekoak dira gure ekonomiaren gaineko kontrola berreskuratzea, erabakiak hartu ahal izatea, bai eta eredu politiko demokratizatzea ere. Marko berri baten eraikuntzatik etorriko dira guzti horiek.

Marko berri batek ahalbideratu behar digu gai ekonomiko eta sozialean gaineko erabaki politikoen jabe goa euskal herritarren esku egotea. Esan dugu jada lotura zuzena dutela markoak eta eredu sozioekonomikoak. Batek bestea eskatzen du, eta batek bestea ekartzen du.

Bistakoa da krisiak eta gatazka konpontzeko prozesuak markatzen dute Euskal Herrian agenda politiko eta soziala. Bakoitzak bere bidea du, bere urratsak eskatzen ditu, eta horrela izan behar du. Baina zalantzarik ez izan biak elkarlotuak daudela, eta bata bestean eragiten duela.

Gatazka politikoaren konponbidea guztiz lotua dago estatu espainoleko lurralde ereduaren arazoari, eta lurralde eredu da eredu sozioekonomikoaren ardatz nagusietako bat. Zer esanik ez erabakitzeko eskubideari begiratzen badiogu, Estatua zentralizazio prozesu bat garatzen ari da erabakitzeko subjektu bakarraren gainean, horrek ziurtatzen diolako Estatuko baliabide guztien gaineko kontrola, baita merkatuaren eskakizunak betetzeko eta ziurtatzeko ahalmena.

Eta Euskal Herrian kokatzen badugu eztabaida, lotura bistakoa da ere. Gauzak non eta nola erabakitzen diren klabea da hartzen diren erabakiak nolakoak diren definitzen dutelako. Gaurko markoaren mugak izan dira langileok gure eskakizunetan aurrera egiteke oztopo nagusia. Eta era berean, marko honek eskaintzan dituen bitartekoak dira enpresari eta kapitalari bere interesak nagusitzea ziurtatu dietenak.

Gatazka politikoaren atzean egon diren elementuak dira guzti hauek, eta zuzenean eragingo dute konponbide prozesuan. Euskal herritarren konponbiderako nahia eta borondatea guzti honen gaitetik jartzea da gakoa, hori da konponbide prozesua bultzatu eta eragin dugun guztion erronka nagusia.

4.2.1. Gatazkaren konponbide demokratikoa

Gatazka politiko eta armatua behin betirako konpontzea Herri honen behar izan nagusia da. Eta guztion erantzukizuna da. Egoera berria bizi dugu konponbide prozesuan martxan jarri zenetik, Aieteko Konferentzian eman behar diren urratsak finkatu zirenetik eta ETAK borroka armatua betirako utzi zuela iragarri zuenetik.

Egoera berria konponbide prozesu definitibo bat aurrera ateratzeko aukerari dagokionez, ez ordea Euskal Herriaren sakoneko errealtateari begiratzen badiogu. Estatuak euren inobilismoan ito nahi dituzte prozesu honek Euskal Herriari eskaintzen dizkion aukerak. Eta estrategia errepresiboari eutsiz kamuztu nahi dute ezker abertzalearen gaitasuna.

Baina are gehiago, zatiketan eta ukazioan urrats berriak emateko asmoa iragarri erantzun dute Estatuak konponbide prozesuari. Gatazkaren benetako dimentsioa ez ezik, bere jatorria ere agerian utziz. Nafarrei gainontzeko euskal lurraldeekin bat egiteko *aukerak ematen dien* artikulua kentzeko erreforma konstituzionala iragartzea edota zentralizazioaren mesedetan burutzen ari diren inboluzio prozesua besteak beste.

Eskubide demokratikoen alde borrokatu behar dugu Estatu bien aurrean, ezinezkoa delako egoera demokratikorik eskuratzea sistemikoa bilakatuko duten eskubide zibil eta politikoen bortxa gainditu gabe. Baina gatazkaren benetako arrazoiak jo behar dugu konponbidea eraikiko badugu. Autodeterminazio eskubidea Estatu bien inboluzio prozesuen aurrean, autodeterminazio eskubidearen aldeko atxikimendua eta aktibazioa indartzea Estatuak konponbide prozesua blokeatzeko duen erabaki politikoaren aurrean.

Euskal Herriak akordio demokratiko bat behar du, Estatuak diotenaren gainetik; eta euskal eragileon esku dago. Gaur lehentasunezko urratsa da autodeterminazioaren alde gauden eragile guztiok eskubide hori defendatzeko eta gure Herriarentzat ziurtatzeko bidea adostea. Premiazkoa ez ezik, posiblea da gainera, baldintza politiko nahiko daude eta zailtasunak ezin dira aitzakia izan eztabaidari eta konpromisoak bereganatzeari ihes egiteko.

4.2.2. Marko demokratikoaren eraikuntza, autodeterminazio eskubidea

Marko juridiko eta politikoa aldatzen ari dira krisiaren aitzakiarekin, botere ekonomikoaren mesedetan xahutzen ari direlako. Estatuak babesten dituen interes ekonomikoetan oinarritutako zentralismoaldi berria martxan da, eta prozesu horretan ez zaio Euskal Herriari autodeterminaziorako eskubiderik aitortzen ezta aitortuko ere. Marko demokratikoaren eraikuntzan urratsak eman behar dira, Estatuarekin gatazka politikoa konpontzeko akordiorik ez badago ere.

Marko berriaren eraikuntza prozesu dinamikoa eta progresiboa izango da. Ez da akordio jakin batekin abiatu, ez eta akordio zehatz baten inplementaziora mugatuko ere. Gure esku dago eskubide horren jabe egitea gaurko egoeraren gainean erabaki politiko eta instituzional berriak hartuz.

Euskal lurraldeak barne bilduko dituen eta euskal herritarrei erabakitzeko eskubidea emango dion marko demokratikoaren eraikuntzan urratsak ematea da autodeterminaziorako eredu eraginkorra gaurko testuinguruan. Erabakitzeko eskubidea gure kabuz baliatzea eta erabakien errespetuan kokatzea konfrontazioa bi Estatuarekin.

Autodeterminazioa prozesu bat burutzea da beraz LABek egiten duen proposamena. Bizi dugun testuinguru politiko eta ekonomikoan ezin da eskubide hau etorkizunean eskuratu beharreko aukera bezala ulertu. Estatuak egunero hartzen dituen erabakiekin ari da bere proiektu unionista indartzen eta ziurtatzen euskal lurraldeetan, eta horren aurrean ezin gara gure erabakitzeko eskubidea aldarrikatzera mugatu. Guk gure erabakiak hartu behar ditugu, nagusi egin behar ditugu herritarren babesarekin eta horiek izan behar dira euskal lurraldeen bilakaera eta garapena zuzentzen dutenak.

Marko berriaren eraikuntzak LABek bereziki borrokatuko dituenak.

- Eredua politikoa demokratizatzea.
- Markoaren helburu eta oinarria eskubideak ziurtatzea, burujabetza ekonomiko eta politikoa.

- Herritarren parte hartze erreala. Zuzena eta zeharka.
- Barne instituzionalizazioa eredu berritza.
- Lurraldeen arteko koexioa. Lurralde batasunaren aukera irekiz.
- Politika ekonomiko eta sozialak. 78an ez bezala, atal hau ezin da kanpoan geratu kapitalari hori interesatzen zaiolako. LHetaBS euskal esparrua. Aurrekontu eta politika fiskala, erreforma konstituzionalaren aurrean.

4.2.3. Marko berria eraikitzeke prozesua

Eraikuntza prozesu politiko oso bat, ez marko konpetentzialaren gaineko negoziatio hutsa.

Akordioen balioa prozesu hau garatzeko. Akordio interprofesionalak marko berri bat osatzeko.

4.3. Klase estrategia berritzeke momentua da.

- Gaurkoteke arrazoiak:
 - Krisiak ezarritako baldintza objektibo eta subjektibo berriak. Lehentasunak, moldeak, bideak... eguneratu behar ditugu.
 - Erreformak eta instituzioak inposatutako borroka testuinguru berria: negoziatio kolektiboaren erreforma. Instituzioak. Klase politikoaren egoera...
 - Prozesuak eskaintzan dituen aukera berriak.
- Gaurkoteak ekarri behar dituenak:
 - Klase subjektuaren berresoketan benetan lagunduko duen estrategia eta eredu sindikala.
 - Zatiketa nagusiak borrokatzeke estrategia behar dugu: sexo genero zatiketa. Landun eta langabe zatiketa.
 - Lantokietan bat egiteak bideratuko dituen strategiak.
 - Kolektibo kaltetuenak borroka sindikalara ekarri behar ditugu. Bazterketa sozialaren kontrako.
 - Borroka egiteke zailtasun bereziak dauden eremuetarako estrategia espezifikoak behar ditugu. Hiri guneak, sektore feminizatuak
 - Aliantzaren bidea egin ahal izatea.
 - Aliantza sindikalak.
 - Aliantzak sindikatu eta mugimendu sozialaren artean.
 - Aliantza eremu politikoarekin.

5. Borroka esparru eta eremuak.

5.1. Prozesu demokratikoa.

5.2. Instituzio politikoak.

5.3. Negoziatio kolektiboa,

5.4. Mobilizatio eta aktibazio soziala.

6. Aldaketarako subjektuak

6.1. Mugimendu independentista.

6.2. LAB. Langileoaren antolakuntza apustu estrategikoa.

6.3. Aliantza sindikalak.

7. Datozen urteetako egitasmo nagusiak.